

**GURE ARTEA SARIAK 2018****A) Ibilbide Artistikoa aitortzeko saria: Gema Intxausti**

Gema Intxausti Miangolarrak (Gernika-Lumo, 1966) Arte Ederrak ikasi zuen UPV/EHUn eta zine eta bideo lizentzia lortu zuen Londresko University College for the Creative Arts ikastegian. Laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieratik, egin dituen banakako zein taldeko erakusketa ugaritan isla izan duen ibilbide artistiko sendoa eta berritzailea garatu du. Lan artistiko geldoa eta lasaia garatzeko hautua bere lanaren ezaugarri nagusietako bat da, eta horrek baldintzatu du etenik izan ez duen gai garrantzitsuen inguruko bere hausnarketa; hala nola, sorkuntza plastikoaren eta ikusizkoaren bidezko irudikapenaren ingurukoa

Egun arte luzatu den ibilbide horretan, Gema Intxaustik material iragankorrak eta/edo bitxiak -baitak, zelofana, parafina- erabili ditu, bai eta muntatze-teknika ezberdinak ere kultura herrikoia, goi-mailako kulturaren erreferentziak eta mundu sexuatu baten egunerokotasunaren bizipenak artikulatuz. Hori guztiari esker, ibilbide koherentea mantendu du, joera igarokorretatik aldendua, non pintura, eskultura eta zineaz baliatu baiten bizitza duinaren, inkomunikazioaren, nortasunaren, oinazearen eta plazeraren inguruan hausnartzeko. Laburbilduz, epaimahaiaren iritziz, haren lanak ekarpen garrantzitsua egin dio ikusizko euskal sorkuntza garaikideari.

**B) Sorkuntza-lana aitortzeko saria: Erlea Maneros Zabala**

Erlea Maneros Zabalak (Bilbao, 1977) Glasgoweke arte eskolan eta Los Angelesko CalArts ikastegian ikasi du. Egun, Joshua Tree (Kalifornia) eta Lekeitio artean bizi da, euskal testuinguru artistikoarekin duen lotura mantenduz.

Praktika kontzeptual batetik, Maneros Zabalak irudiak ekoizteko baldintzak eta horien inguruko behakoa problematizatu ditu. Irudien jabetzeak, serie-erreproduzioak eta aldatzeak aipatuak nola osatu, erakutsi, zabaldu eta artxibatzen diren ikusarazten du. Tradizio grafiko ezberdinei loturiko prozedurak -grabatua, kartela edo fanzinea- berriz asmatzearekin batera, ondorio historiko, politiko eta sozial aipagarriak dituen ikonografia bat garatu du. Posizionamendu kritiko argia eta irudien artisau-trataera uztartzen dituen artista baten lanean ikus daitekeen koherentzia eta etengabeko ikerketa aitortu ditu epai-mahaiak.

Maneros Zabalak ondoko erakundetan erakutsi du bere lana, besteren artean: Centro de Arte Reina Sofia Museo Nazionala, Guggenheim Bilbao Museoa, Mexiko Hiriko El Eco, Bergengo Stiftelsen 3,14, Hanburgoko Seamen's Art Club, Dos de Mayo Arte Zentroa, Montehermoso Kultur Zentroa eta Rekalde Aretoa.

**C) Arte plastiko eta ikusizko arloan agenteek egindako Lana aitortzeko saria: Bulegoa z/b**

Bulegoa z/b Beatriz Caviak, Isabel de Naveranek, Miren Jaiok eta Leire Vergarak 2010. urtean Bilbon sortu zuten talde bat da. Ibilbide profesional eta heziketa ezberdinak uztartuz, arte eta ezagutzako bulego bat sortu zuten, Euskal Herriko arte garaikidearen arloan beren ustez kritikoa izan zen une bati erantzunez.

Topagune, hausnartu eta ekoizteko gune gisa jaio zen Bulegoa z/b. Bere egunerokotasunean, kudeaketa- eta erabakitze-eredu kolektiboak eta horizontalak aplikatzen ditu. Honela, bere lan-prozesuen ondorioz egitarau erregularra eta ireki bat sortzen duen gunea garatu dute, non ikusizko arteek eta pentsamendu garaikideak espresio-formatu zeharo ezberdinak hartzen baitituzten: mintegiak, emanaldiak, performanceak edo ikasketa-taldeak.

Epaimahaiaren iritziz, Bulegoa z/b-k artisten, gizarte-ehunaren eta kultura-erakundeen arteko bitartekaritzaren aldeko konpromiso irmoa duen proposamen bat eskaini dio euskal testuinguruari. Halaber, tokiko mailan -Solokoetxe auzoan, gehienbat- duen eginkizun dinamizatzailea baloratu da, bai eta sareko nazioarteko proiektutan duen parte-hartzea ere; ondokoekin lan egin du: If I Can't Dance (Amsterdam), Tate Modern (Londres), KW (Berlin), CAC (Vilnius) eta M-Museum (Lovaina).